

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Prozesu teknologikoaren urratsak jakinik, arazo baten ebazpen prozesuan barneratu eta honen txosten teknikoa burutu.	1.1. Prozesu teknologikoaren urratsak jarraituz, txosten teknikoa osatu du talde lanean.
2. Elektrizitatea 1: OHMen legea ezagutu, barne dituen magnitudeak identifikatuz eta zirkuituetan hauen artean dagoen erlazioa aplikatu kalkulu sinpleen bidez.	2.1. Zirkuitu elektriko batean OHMen legea osatzen duten magnitudeak identifikatu ditu.
3. Elektrizitatea 2: Serie eta paraleloan dauden konexioetan OHMen legea aplikatu eta kalkuluak burutu. Erresistentzia baliokideen kalkulua eta bakoitzak jasaten dituen intentsitate eta tentsioak kalkulatu.	2.2. Zirkuitu elektriko sinple batean, magnitudeen arteko erlazioak osatu eta behar diren kalkuluak burutu ditu.
4. Ordenagailu bidezko diseinuan barneratu, 3Dko diseinuetan, TinkerCAD programa oinarri hartuz.	3.1. Zirkuitu elektriko bat osatzen duten elementuen arteko konexioak desberdindu ditu.
5. Taldean egoera bati aurre egiteko, prozesu teknologikoaren etapak jarraituz, proiektu bat diseinatu.	3.2. Erresistentzia baliokideen kalkulua burutu du.
	3.3. Elementu bakoitzak jasaten dituen intentsitate eta tentsioak kalkulatu ditu.
	4.1. TinkerCAD programa erabiltzeko gai da, proposatu zaizkion ariketak egiteko.
	5.1. Power Bank proiektuaren oinarri izango den diseinua beren kabuz sortzeko gai dira taldean, TinkerCAD programa erabiliz eta baldintzak kontutan izanik.